

2005eko hirugarren hiruhilekoan %5,4 gutxitu ziren heriotzak

2005eko uztailean, abuztuan eta irailean 3.867 pertsona hil ziren, %53,5 gizonak eta %46,5 emakumeak

EUSTATEN datuen arabera, 2005eko hirugarren hiruhilekoan 3.867 pertsona hil ziren, aurreko urteko aldi berean baino %5,4 gutxiago. Lurraldeka, Araban 510 pertsona hil ziren, Bizkaian 2.171 eta Gipuzkoan 1.186.

Heriotza eragin zuen arrazoi nagusia tumoreak izan ziren, 1.286 pertsona hil ziren tumoreengatik (%33,3); heriotzaren bigarren arrazoa zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren, hauek 1.082 heriotza eragin baitzituzten (%28). Hirugarren arrazoa arnas gaixotasunak izan ziren, 319 pertsona hil zirelako arrazoi horrengatik (%8,2).

Sexuaren arabera, heriotzaren eragileak ezberdinak izan ziren. Gizonen artean, tumore baten ondorioz hildakoak arnas gaixotasunen baten ondorioz hildakoak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, ordea, heriotza gehien eragin zuten gaixotasunak kardiobaskularrak izan ziren eta bigarren gaixotasunak tumoreak. Arnas sistemako gaixotasunak bi sexuen artean heriotzaren hirugarren arrazoi moduan mantentzen dira.

2005. urteko hirugarren hiruhilekoan izan ziren heriotzen artean urte bat bete ez zuten 3 ume hil ziren bakarrik, 2 mutil eta neska 1.

2005eko hirugarren hiruhilekoko hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 1.004 pertsona gehiago izan zirelako. Hiru lurraldeetan eman ziren saldo positiboak: Araban 192 biztanle gehiago izan zen, Bizkaian 307 eta Gipuzkoan 505.

**1. Taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera.
Hiruhilekoen alderaketa**

	2005eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2005eko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2004ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	3.867	100,0	4.372	100,0	4.089	100,0
Gizonezkoak	2.069	53,5	2.332	53,3	2.116	51,7
Emakumezkoak	1.798	46,5	2.040	46,7	1.973	48,3
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	3.867		4.372		4.089	
Tumoreak	1.286	33,3	1.288	29,5	1.294	31,6
Zirkulazio-aparatua	1.082	28,0	1.298	29,7	1.201	29,4
Arnas aparatua	319	8,2	443	10,1	321	7,9
Txegoste-sistema	191	4,9	231	5,3	231	5,6
Istripuak	179	4,6	168	3,8	160	3,9
Gainerako gaixotasunak	810	20,9	944	21,6	882	21,6
GIZONEZKOAK	2.069		2.332		2.116	
Tumoreak	808	39,1	827	35,5	821	38,8
Zirkulazio-aparatua	534	25,8	612	26,2	530	25,0
Arnas aparatua	189	9,1	267	11,4	182	8,6
Txegoste-sistema	115	5,6	126	5,4	137	6,5
Istripuak	128	6,2	118	5,1	119	5,6
Gainerako gaixotasunak	295	14,3	382	16,4	327	15,5
EMAKUMEZKOAK	1.798		2.040		1.973	
Tumoreak	478	26,6	461	22,6	473	24,0
Zirkulazio-aparatua	548	30,5	686	33,6	671	34,0
Arnas aparatua	130	7,2	176	8,6	139	7,0
Txegoste-sistema	76	4,2	105	5,1	94	4,8
Istripuak	51	2,8	50	2,5	41	2,1
Gainerako gaixotasunak	515	28,6	562	27,5	555	28,1

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es